

## PI XI TA LATERIAKAZKO ARTU-EMONAK (1)

**B**EREZ be ain-malkaŕa dan arlo onetan burua goitik agertzeko zoztor andi ta bereziak agertu yakozan Pi XI'ri.

Etxakon txikiena bere aufetiko Bedita XV aih zuzen be sail onetan gizaldiokaz ezagutu danik Aita Santurik trebeena edo zoritsuena beintzat izatea, izafak gabaz argi-eder emonafen eguzkia agertukoxe ostondu egiten dira-ta.

Bigafen eragozpidea atzenengo guda-ostean lateŕietan erne ta azi dan aberkoikeria izan dau. Afezkero siñestedunak eta eleiz-gizonak eurak be gaitz ofek kutsututa agertu dira ta aberi-lateŕiak neufi barik goretsi daroez; askoren Yaungoiko lateŕia da ta Yaungoikoaren aintzea esku-bide guztien yatofi ta yabetzat dabela Elexea be aren yopu ta mendeko gura leukie.

Laterkoyegiak nagusi eztirean lateŕietan, bañiz, sozialista edo euren antzeko gofiak dira geyenbaten agintari eta oneik Elexea gofoto dabena edonok daki.

(1) Idanpuru onegaz Pi XI gure Aita Santua maiteak erdeldunen *diplomazian* izan dauzan gora-berak atzaidu gogo dodaz. *Diplomazia*-itzak, yatofizko bere ikufetik naiko al denduta bada be (Ik. Forcellini-Perin, *Lexicon totius latinitatis*, V. diploma), gaur egunean lateŕiak alkaŕen artean izaten dabezan artu-emonazko yakitzea dikur eta eztira egiten urin ibili doistafak euren izkuntzaz *Staatswissenschaft*, Lateŕi-yakintzea esan dabenean. ¿Zein ete-geunke euskeraz itzik adiñonena?

Baña ofen bide buruzgorakoa eukiaŕen, Pi XI'k, bere buru argi ta biotz kemen-tsuak eraginda, beti gorantza egin dau eta gaur mendi-gandofetara iya elduta agiri yaku.

Ezta gero esanau ez labankeri ez geyegikeririk.

Bein-beñean gudearen estukureak Vatikano'ra ekaŕi ebazan lateŕiak bertan dafaiz eta urteokaz beste askotxo be etofi yakoz. Aurtengo *Anuario Pontificio*'n dakusgunez igazko urtearen atzenetan ogetamar lateŕfiren ordezkariak egozan Aita Santuaren ondoan eta aurten beste auk bidali dautsez eurenak. Lateŕirik geyenak eta indartsuenak, ba, Aita Santuaren adiskidetasunaren bila yoranez agiri dira; indar andia daukanaren ezaugaria.

Gero eztau gizalldiotan ikusi Eroma'k urteokaz aña Laterpuru Aita Santua iker-tzen etofita.

1922'ko Epalaren 28'an Belgika'ko Eŕe-gea, emazte ta semerik zaŕenagaz, etofi yakon.

Urte atan Garagañilaren 11'n Alvear Yauna Argentina'ko Erkalburu autua eldu yakon, abefirako bidean yafi baño lenago agur egin eta onespena artuteko.

1923'ko urtean Ofilaren 5'n Ingelanda'



**Batikano.** Goyan. Gaspari Jankorduna, Aita Santuaren ordelaria, ta Mussolini, Italia'ko efregearena, Lateran'on itunbena araututen.

**Erdian.** De Vecechi, Italia'ko Ordezkarria, Doipurua Ielengoz ikefita gero, Batikano'an.

**Bean.** Gaspari Jankorduna ta Mussolini, Lateran'go itunbena zendetsi ta izenpetuten. (Foto Felici)

ko Efrege-efregiñak ikefi eben eta urte ofetan bertan Azilaren 19'n España'ko Efrege-efregiñak.

Ufengo urtean, 1924'n, Bagilaren 21'n Abisinia'ko Kaisergai Ras Tafari Macconnen eldu yakon.

1928'ko Urtejarren 12'n Amanullah Af-

ganistan'go Efregeak emazteagaz ikefi eban.

Eta aurten il onen 5'n Italia'ko Efrege-efregiñak yoan yakoz eta egun bi geroago Efregegaya bere afeba gazteen bigaz.

Liberia'ko Erkalburua be etofi yakon eta Suezia'ko Efregea, neguan - neguan

emen izaten doguna, ezta inoiz aldenduten Aita Santuagana agertzaka.

Edestiak gogoratzen dauskuzan Aita Santu ospatsuenen antzera latefiak bafuan nastuta, auzokoakaz asafe nai beste ezbeafen azpian ikusi orduko, an izan yake Pi XI argi, bake ta laguntzea eskeñika.

Aita Santutzarako izentau eben eguntan Italia naste gofian bizi zan; legezko agintariak ezetarako indar barik efa alkafegaz lufuka eragoyen sozialista ta faxisten azpian bizi zan eta etzan gorotoa, lapufetea ta eriotzea baño; latefia ondatu -agiñean eta Elexearentzat etorkizun batza. Ofegaitik Aita Santuak egun areitan bai idazkiz bai itzaldiz lan andia erabili eban bufukariok baketu ta aberkoikeriak bide-okeferaturiko amaikatxo aztertuten.

Guda -oste onetan latefi -ordezkariak ufengo gudeari bideak eragozteko saritan batzartu izan direala gogoan bide dozu, irakurle, naita geyen baten alkar ikusi -eziñak atarako bide okefa afazo. Eztautse Aita Santuari batzar ofeitarako deirik egin, baña bera, bakerako alegin guztiak edonogandikoak zireala onetsirik, an izan yake beti lagun eta bakerako bide bakafa bein eta ufengoan argi erakutsirik.

Gai onetzaz berein idazki argitara dauz, baña ezin leiteke aitatu barik itxi 1922'ko Lotazilaren 23'n Kisto'ren bakaldefian Kisto'ren gentza edo bakeaz idatzi eban.

1922'n eta ufengo urtean Efusia'n go-sete ikaragafia izan zana gogoan dauka-gu eta zelan, gosea zala-ta, milaka ta milaka ilten zirean, ume ta gazteen artean battez be. Efi efukafi aren agintariak bariz menpekoen gosea ilteko baño yoran andi-goa erakusten eben, orduintxe be, Ele-xea yazartzen eta ezeuken benetan Aita Santuaren efukirako irabazi andirik. Baña arerioen alde bizia emon eban Yaungoiko -Semearen ordezko ta ondorengoa zala

begiraturik, Pi XI'k biotza ta diru-kutxak zabal eutsezan eta milaka askoren bizia gose eriotzearen erpe artetik atera eban.

Ezbeafetan ezeze pozaldietan be latefiak lagun izan dabe Aita Santua. Txina'ko abertzaleak latefi bafuan afotzen puttez sortuko nasteak bareturik, euren abefia afotzen yoputza lotsagafitik askatuteko bidezko gogoa erakutsi ebenean, Aita Santua igazko Dagonilaren 1'ko idazkiz bera izan zan askatasun-eskubidea ezagutu ta atarako bideetatik yafaitzeko txaloak yoten eutsezan lenengoa, beste latefiak zer egin edo zer asmo eben begiraka barik.

Baña sail onetan Pi XI'k erabili dauan lanik gogofena ta yaretsi dauzan gurendarik andienak bere latefiakazko itunbenak, erdeldunak *konkordatoak* deritxenak dira.

Kepa gurenaren aulkira eragi eben urtean bertan Ofilaren 30'n be-izendu eban Lettoniagazko itunbena ta Azilaren 3'n sendetsi.

1924'ko Urtearen 18'n itundu zan Franzil'ko yaurgo edo gobernuagaz ainbeste naste ta asafereñ bide izandako Goterki -bazkunaz.

Ufengo urtean Bavaria ta Polonia'gazko itunbenak beizendu ta sendetsi eban.

1927'ko Irailaren 27'n Lituania'ko Erkaldefiagazko itunbena.

1928'ko Yofalaren 15'n Portugal'go Erkeldefiagaz.

Checoslovachia'ko Erkaldefi gaztea sortukeran Elexeagaz asafe agertu zan; baña asafe ori beretzat be kaltegafi yakola ezaguturik, bake-eske eldu zan eta igazko Otsalaren bigafenean sendetsi eban Aita Santuagazko itunbena.

Italia'gazkoaren ganera, aurten be Romania ta Borussiagazko itunbenak egin dauz.

Itunbenok egiteak bakafik Aita Santuak sail onetan erabili dauan lana asko argi darakusku, ez ofaitio gurendarik. Naita itunbenok geyen baten alderdi bien-tzat ongafi izan, berez onura andiagoak ekafi daroatsez latefiari, Elèxeari baño, ta eurok egikeran zur eta arduraz ibili ezik, Elexea latefiaren mendean estu ta labur lotuta iztea efaz yazo leitekena da. Ofegaitik egite utsak baño gafantzi andiagodauko zelan egiñak.

Pi XI'k eztau aitzu ez baztertu egi ori. Lantxo onen asieran oafi dodanez, gaur latefietan indartsu bizi dan abefi-latefikoikiak eleuke bere eskubideetan neufirik gura eta Elexea mirabetzat pozik artuko leuke. Baña gure Aita Santua onetan gogor agertu yako beti, ta yopu baño asafe bizi nayago ebala argi iragafi dautso. Ta latefiak bafuan dabezan nasteen ganera Elexeagazko asafea ta aitu-eziña euren ondagafi yakela begiraturik, buru afoa makurtu egin bear izan dabe ta Elexearen askatasun-eskubiderik andienak ezagutu.

Aitatu dodazan itunbenok argi dautofe Elexea bere buruaren yabe izango dala Gotzayak izentatzen, irakaskintzan, eleizgizonak ezabela gudaritzarik egin bear ko ta abar. Aita Santuak gotor eutsi dautso egitarau oneri: *neuretik ez emon ezer, ordain barik* eta alan itunben bakotxa gurenda andiagoda edo txikiagoda izan yako. Afitzekoa bada be, oraingo itunbenok, latefi gofiskakaz egingoak be, Elexearen askatasunari buruz amazortzi ta emertzigafen gizaldietan latefi-katolikoakaz egiñak baño askozaz obeak dira.

Baña besterik egin ezta be, sail onetan Pi XI goi-goyan ezarteko naiko litzakez aurtengo Otsalaren 11'n Lateran'go yauragian beizendu zirean itunbenak. Euron bidez *Efoma'ko ebazkizunari* atzena emon yakola ta Italia'ko eleiz-arazoak

arautu zireala badakigu, baña itunbenok egitearen eta batez be ondo egitearen zailtasuna nekez uler daikegu.

Aita Santuagaz asafe biziteak menpekorik geyenak katolikoak ebazan Italia'ko yaurgo edo gobernuari buruauste andiak ekartsozan; eta agaitik asafe ori sortu zanezkeroko agintarien ardurarik andientaiko berari atzena emotea izan da. ¿Zelan baña? Ortxe untzea.

Adiskidetu-gurea ta beafa urteak zear indartuaz yoan zan eta laster-laster zerbaitera yo bear zana agirian egoan; naita gitxik baño yakin ez, oraintsu arte, atarako guda-ostean Paris'en egin zirean alegiñak. Alegiñok uts emon eben orduan Italia'ko agintariak goxean igon, eguerdian yausi ebizelako, baña alderdi bien biotzetan alkartu-gure ori igafi zeitekean. Agaitik Mussolini'k agintza makilea eskuetaratu ebanean, ardurarik beñekoena asafe ofi atzena emotea izan eban.

Ezagun yakozan Aita Santuari Mussolini'ren asmo ta ifitsok; bere agintzea sendotuteko asafe ori kendu-beafa eukala igafi eutsan ta alan bake-gurari-eskariak agertu eutsazanean, Aita Santuak Elexearen eskubideai gogor eta gotor eustea erabagi eban, Mussolini bere afokeri ta guzti atzenean makur-makur agertuko yakola aur-ikusirik.


Alantxe yazo zan yazo be. Mussolini itunben-eske agertu yakonean, bayezkoa emon eutsan Aita Santuak, baña Efoma'ko ebazkizunagaz batera Italia'ko eleiz-arazoak ituntzekotan. Itzez bai, baña egi-tez etzan efaz etofi ataraxe Mussolini. Berez afoa ta oraingo aberkoi-gatxak kutsututakoen buru dan ezkerro, ezin iruntsi ebazan Elexearen askatasun-eskubideak, batez be irakaskintza ta gazte-azikuntzeari buruzkoak, ta itunben-autuok iraun eben lau urteetan bein baño geyagotan

azpiratu izan ezaban eskubideok. Ez ofaitio berealaxe Aita Santuaren asafe-itza entzun barik. Gaurko egunez indarrik andiena dauan eta Italia'ko gaztediak iya yaungoikotzat daukan gizon ori Pi XI uzkur ta bildertu eziñik ikusi dogu.

Baekian Mussolini'k, edestiaren bidez, Aita Santuak geyen baten gogor egin ezkeru amor egiten ebela ta atzenean norberakgura ebana emotera ekarten zireala,

sunu ta bakea galtzeko bildufez, polito-polito Pi XI'k eskatu eutsana emotera makurtu zan.

Itunben oneitan Aita Santuak buru argi ta zuña erakutsi ebala efaz irargi leiteke. Efomia'ko ebazkizunari buruz lufetan gitxi-gitxi gelditzen yakolako batek baño geyagok edo Aita Santua bigunegi edo Mussolini gogofegi agertu direala uste izan dabe. Egia da ofetan Mussolini oso gogor



**Batikano:** Aita Santuaren Gendarmien lenen buruak, jai andietako jantziakin  
(Foto Felici).

ta oraingoagaz be beste ainbeste yazoko yakolakoan edo egoan, baña oker-oker. Pi XI ezta iñoren aurfan atzera egitekoa ta argi iragafi eutsan Mussolini'ri be ezeutsala bildufik, beragaz itundu nai baeban Aita Santuaren eta Elexearen eskubideak zintzo-zintzo ezagutu ta autortu bear ebazala. Igafi eban Mussolini'k alpeñik yakozala zemai ta sapskeriak eta berak ain ifits eban Aita Santuagazko adiskideta-

agertu dana eta Aita Santua bere Vatikano'ko yauregi-baratzakaz iztea guren-darik andienatzat dautofala, baña olarke-riok eztarakuse egi andirik. Ofetan Mussolini'k nai ebana yaretsi baeban, Aita Santua atara efaz etofi yakolako izan zan. Aita Santuak bere askatasunerako lain lur izan ezkeru, besteak oldez itxi eutsazan. Eta onetan Pi XI zuzen eta burutsu ibili zala etorkizuneko edestiak autortuko-

dauala baitintzat daukat. Askatasunerako lufrik asko izan ezkerok; ta ofetarako asko nai gitxi bardin-bardin da, ganekoak kaltegarri baño elitzakiozan izango. Naita Eñoma'ko uri auxe bakafrik geldi Aita Santuari, berau yaurtzeak ekafiko leuskiozan naste ta buruausteak etxakozan makalak izango.

Ganera lufari buruz samura izateak bes-teetan gogor egiteko eskubide ta erea emon dautse ta benetan eztauz alpefrik galdu eskubide-ofek. Lelengo, oraingo ta geroko azkatasun osoa yaretsi dauz eta gero lapufeteen ordainketa mardo. Dirutan bakafrik mila ta zazpireun eta befogeta amar miloe lira artu dauz eta latefi-yaurtze-ardura barik dirutza ori laguntza polita yakona agirian dago.

Baña berea ezeze Italia'ko elexearen azkatasuna be lortu dau. Itunbenon bidez Italia'k itxi egin bear izan dauz ain kutun ebazan eta elexea yopu baño yopuago euken berein eskubide. Añezkero elexea ezta yaurgoaren bayezkoaren beafean aurkituko Gotzai-pafokoak izentatzen, bere ikastolak eragi-yaurtzen, bere irakatsiak Katoliko-Ekintzaren bidez efan zabalitzen; eleizgizon-lekaideak gudaritzatik azke dira, eleiz-ezkontzeak lege-indaña izango dau, lelengo ta bigafen malako ikastoletan kistaf uzkurtza irakatsiko da.

Guzti au begiraturik, Aita Santuak benetan asko irabazi dauala autortu bear da

ta egi au argi ikusi dabe Elexearen are-riok eurak be.

Itunbenok ezagutu zirean ezkerok, asafe yarki yakozan Mussolini'ri bere adiskiderik mamienak eta latefia Elexearen menpeko egin ebalakoaren efua ezafi eutsen.


Orduintxe agertu zan oldez barik ezin bestean itxi ebazala Mussolini'k aitatuko eskubideok; itunbenok eskuan izan ebazanean, gitxitu, okertu nai izan ebazan afokeriz aña guzufezer beteriko Ofilaren 13'ko bere itzaldiagaz, baña ufengo egun-ean Aita Santuaren erantzun asafea entzun bear izan eban. Sapustu zan Mussolini, baña itunbenok beizendu zirean letxe zeatz-zeatz ez betetakotan ezeukala sendesteko asmorik Aita Santuak erakutsi eutsanean, bañiro burua apaldu bear izan eban eta Vatikanoko yauregira itunbenok sendesten eldu zanean, itzez ta idatziz, bai itzari bai gogoari buruz, zintzo-zintzo beteko ebazala agindu bear izan eban.

Edozein alderditik begituañen ezin lei ukatu Pi XI gure Aita Santu maiteak gurenda andia irabazi ebala.

Beste sailetan goi-goitik ibili bada, emen be edestiak ezagun-erazo daukuzan Aita Santurik andienetaikoa dala, agiri da.

*Roma'tik 1929'ko Lotazilaren 10'n.*

**Lafakoetxea A. K. O.**





dauala baitintzat daukat. Askatasunerako lufik asko izan ezkerok; ta ofetarako asko nai gitxi bardin-bardin da, ganekoak kaltegarí baño elitzakiozan izango. Naita Efoma'ko uri auxe bakafik geldi Aita Santuari, berau yaurtzeak ekafiko leuskiozan naste ta buruausteak etxakozan makalak izango.

Ganera lufari buruz samuía izateak bes-teetan gogor egiteko eskubide ta erea emon dautse ta benetan eztauz alpefik galdu eskubide-ofek. Lelengo, oraingo ta geroko azkatasun osoa yaretsi dauz eta gero lapufeteen ordainketa mardoá. Dirutan bakafik mila ta zazpireun eta berogeta amar miloe lira artu dauz eta latefi-yaurtze-ardura barik dirutza ori laguntza polita yakona agirian dago.

Baña berea ezeze Italia'ko elexearen azkatasuna be lortu dau. Itunbenon bidez Italia'k itxi egin bear izan dauz ain kutun ebazan eta elexea yopu baño yopuago euken berein eskubide. Afezkero elexea ezta yaurgoaren bayezkoaren beafean aurkituko Gotzai-pafokoak izentatzen, bere ikastolak eragi-yaurtzen, bere irakatsiak Katoliko-Ekintzaren bidez eñan zabalitzen; eleizgizon-lekaideak gudaritzatik azke dira, eleiz-ezkontzeak lege-indafa izango dau, lelengo ta bigafen malako ikastoletan kistañ uzkurtza irakatsiko da.

Guzti au begiraturik, Aita Santuak benetan asko irabazi dauala autortu bear da

ta egi au argi ikusi dabe Elexearen are-rioak eurak be.

Itunbenok ezagutu zirean ezkerok, asafe yarki yakozan Mussolini'ri bere adiskiderik mamienak eta latefia Elexearen menpeko egin ebalakoaren efua ezafi eutsen.


Orduintxe agertu zan oldez barik ezin bestean itxi ebazala Mussolini'k aitatuko eskubideok; itunbenok eskuan izan ebazanean, gitxitu, okertu nai izan ebazan afokeriz aña guzufeñz beteriko Ofilaren 13'ko bere itzaldiaz, baña ufengo egun-ean Aita Santuaren erantzun asafea entzun bear izan eban. Sapustu zan Musolini, baña itunbenok beizendu zirean letxe zeatz-zeatz ez betetakotan ezeukala sendesteko asmorik Aita Santuak erakutsi eutsanean, bafiro burua apaldu bear izan eban eta Vatikanok'ko yauregira itunbenok sendesten eldu zanean, itzez ta idatziz, bai itzari bai gogoari buruz, zintzo-zintzo beteko ebazala agindu bear izan eban.

Edozein alderditik begituafen ezin lei ukatu Pi XI gure Aita Santu maiteak gurenda andia irabazi ebala.

Beste sailetan goi-goitik ibili bada, emen be edestiak ezagun-erazo dauzkuzan Aita Santurik andienetaikoa dala, agiri da.

*Roma'tik 1929'ko Lotazilaren 10'n.*

**Lafakoefxea A. K. O.**





## AITA SANTUATZAZ

**I**RAKURLE euskalduna, goyazen biyok egunsentiko argiyagaz batera eguskiyaren sortzeria ikusten.

Gurago badozu, izan dedila udabariko egun baten goiz alai ta eztiitsua.

Loren usaiñak gogoari atsedena ta poza damotse. Mendiyan bera doyazen urak seaskan dagoan umetxuen abestiya dirudiye. Zugatzetako oriyak eta adar gañetako txori-abeslariyak Jaun onak, goiz aldian berari zorionak emoteko ipiñitako soñu abeslari txikiak dira.

Itxasua, baketsu, urdiñ, Jaunagaz bakian dagoan gogoaren irudia dala esango neuke.

Orobat, onek danok eta izentau be ezin dodazan edertasun gustiak ikusita, zeruruntz begiak eta biotza yasota, pozez beterik diñot: ¡Ene! zein aundiya, zein edera, zein ona zarian zu, neure Jaun altsu ta algustidun orit! ¿Nor zu lakorik?

Irakurle, goyazen ostera be, beste egun baten, neguko egun gogor baten itxazeitzera. Ipar aldia baltza dago, lañoz betiak dakuzuz inguru gustiak, zeru ortzetan gaua ta itzaltasuna: itxasua oruka, mediyari bere dar dar zotiñ daragiyoela. Eta an beian, ondartzta inguruan, ari zati bat, aitz lodi bat, itxaso asaratuak damotsazan taunpada ikaragariyak ar-tzen. Yoago ta lerdnago, yoago ta garbiyago.

Eta orduan diñot neure kolkorako: Aitz orek ainbeste itxaso otsez,